

## ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, behar beharrezkoa da beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea. Horretarako, bizikleta elektrikoak merkaturatzen dituen konpainia batekin elkartuko gara eta honen bidez, errazago lortuko ditugu proiektua aurrera eramateko baliabideak; bizikletak hain zuzen ere.

Gure proiektua aberasteko G&G vehiculos cero emisiones izeneko enpresarekin harremanduko gara. Bizikletetan industria oso handia dago, baina zenbait hutsune ere badira, izan ere eskaintza oso monotonoa da eta ez dago beste produktuetatik asko ezberdintzea lortu duen produkturik oraindik. Horregatik, G&G vehiculos cero emisionesek merkatuan existitzen ez diren ondasunak proposatzen ditu.

Enpresa hau aukeratu dugu elkarlanean aritzeko eskaintza originalak dituen eta merkatutik ezberdintzen jakin dezakeen enpresa txiki bat delako. Gainera, dituzten diseinuetako batek gure proiektuan oso ondo funtziona dezakeela uste dugu. Izan ere, aukeratutako diseinua elektrikoa da, zona urbanoetarako prestatua eta oso praktikoa da erabiltzaileentzat. Erosotasun asko eskaintzen dizkio erabiltzaileari eta bizikleta eta patinetea denez, bi pertsona ere ibil daitezke dira bertan.

Gure enpresari dagokionez, Oarsoaldeko eta bertako herrien barneko komunikazioa hobetzea dugu helburu. Horretarako, bizikleta elektrikoez baliatuko gara. Gure balioetako bat erabilerraztasuna da eta hori bermatzeko, txartela eta aplikazio digitalaz gain bizikleten kalitatea ere garrantzitsua da.

Gure aliantzari dagokionez, erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko xedea izango du. Hau da, aliantza mota honen bitartez, gure bizikleta-sarean jarduera aurrera eramateko beharrezkoak ditugun materialen eskuragarritasuna bermatzea lortuko dugu. Betiere, konfiantza eta errespetuzko elkarlanean oinarrituz, elkar zapaldu edo gutxietsi gabe.

Bestalde, bi erakundeen arteko harremanari dagokionez, onuragarria izango da biontzat. Horregatik, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa dela ere esan dezakegu. Alde batetik, gure helburuak asetzeko, bizikleta elektriko prestatuak eta adin guztietarako erabilgarriak direnak eskainiko dizkigutelako. Bestalde, eurentzat laguntza nabaria izango da, izan ere, oinarri ekonomikoa sendotzeko aukera emango die, enpresa berria da eta sortzeko prozesuan baitago.

Bizikleta enpresarekin elkartzeaz gain, beste hainbat hornitzaileekin ere harremanetan jarri beharko gara, sare digitalen antolakuntzarako adibidez. Lehenik eta behin, informatiko batekin eta diseinatzaile batekin kontaktatuko dugu, gure aplikazioa sortu eta erakargarria egin dezaten. Bestalde, txartela kargatzeko herriko paper dendatan izango da aukera, beraz, funtsezkoa izango da hauekin ere harremana eraikitzea. Azkenik, "Goiena" elektrizitate enpresarekin ere kontaktatuko dugu, bizikletak kargatzeko guneak ezartzeko.

Gure enpresak funtziona dezan behar ditugun bazkide edo hornitzaile nagusiak, Oarsoaldean bizi diren eta bizikletan segurtasunez ibili daitezken kideei zuzenduta dago. Hau da, herri batetik bestera erraztasunez mugitzeko zailtasunak dauzkatenei zuzenduko da bizikleta-sarea. Hartzaile hauek gure enpresaren garapenerako oso garrantzitsuak dira, izan ere, bezerorik gabe ez genuke lortuko proiektua aurrera eramatea.

Ondorioei dagokienez, gu enpresa hau aurrera eramateko gai ez garenez, aliantza hau funtsezkoa dela pentsatzen dugu. Alde batetik, guretzat onuragarria delako, lehen aipatu bezala materiala eskuratzeko beharra baitugu. Bestalde, eurentzat ere onuragarria izango da bezero garrantzitsu bat izan gaitezkeelako, enpresaren hasieran bultzada ekonomikoa emanaz.